

## Enplegua finkatzeko prozesu berezia Proceso especial de consolidación

### ADMINISTRARIEN KIDEGOA-ADMINISTRARIEN ESKALA ADMINISTRARI LAGUNTZAILEEN KIDEGOA-ADMINISTRARI LAGUNTZAILEEN ESKALA

### CUERPO ADMINISTRATIVO-ESCALA ADMINISTRATIVA CUERPO AUXILIAR ADMINISTRATIVO-ESCALA AUXILIAR ADMINISTRATIVA

Epaimahai honek berariazko oinarrietan ezarritako baremoaren arabera, deialdi honetako merezimenduak baloratzeko, lehiaketa fasean honako hauek hartu behar direla kontuan jakinarazi nahi du:

➤ Esperientzia orokorra eta espezifikoak:

Atal hauetan deialdi honetako eskabideak aurkezteko epea amaitu aurreko azken 15 urteetan lan egindakoaldiak baino ez dira kontuan hartzen.

Hau da, aldi konputagarria **2007ko ekainaren 23tik 2022ko ekainaren 22ra bitartekoa da.**

Esperientzia dagokion administrazioak emandako **zerbitzuen ziurtagiriaren** bidez egiaztatu behar da, ofizios zenbatzen diren Eusko Jaurlaritzan alegatutako emandako zerbitzuen kasuan izan ezik.

Atal hauetan ez dira onartuko lan-bizitzaren txostenen, kontratuen kopien, izendapenen, nominen eta abarren bidez egiaztatutako zerbitzuak.

Esperientzia espezifikoak Euskadiko Administrazio Orokorrean eta haien erakunde autonomoetan lortutakoa da. Atal honetan, deialdiko oinarriak ez dute aipatzen haren menpe dauden Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoak, hau da, Osakidetza, Garapenerako Kooperazioko Euskal Agentzia, URA eta abar.. edota beste erakunde

Este Tribunal quiere poner de manifiesto que, de conformidad con el baremo establecido en las bases específicas, en la fase de concurso de esta convocatoria ha de tenerse en cuenta lo siguiente:

➤ Experiencia general y específica:

En estos apartados se computan exclusivamente los periodos trabajados en los últimos 15 años anteriores a la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes de esta convocatoria.

Esto es, **el periodo computable es entre el 23 de junio de 2007 y el 22 de junio de 2022.**

La acreditación de la experiencia debe hacerse mediante el **certificado de servicios prestados** emitido por la Administración correspondiente, salvo para los servicios prestados alegados en el Gobierno vasco que se computan de oficio.

En estos apartados no se van a considerar acreditados servicios alegados mediante Informes de vida laboral, copias de contratos, de nombramientos, nóminas etc.

La experiencia específica es la adquirida en la Administración General de Euskadi y sus Organismos Autónomos. En este apartado, las bases de la convocatoria no incluyen a los Entes Públicos de Derecho Privado dependientes de ella como por ejemplo, Osakidetza, URA, Agencia Vasca de Cooperación al Desarrollo etc... u otras



batzuk, adibidez, Euskal Herriko Unibertsitatea, Justizia Administrazioaren Kidegoak...beraz, zerbitzu horiek Esperientzia Orokorren atalean baloratuko dira.

Ez da baloratuko sozietate publikoetan, fundazioetan, enpresa pribatuetan eta aurretik aipatutako bestelako erakundeetan eskuratutakoa.

Egindako zerbitzuak aurkeztuko den zerbitzu ziurtagirian agertzen diren bezala alegatu behar dira.

Eskaeran alegatutako datuak eta egindako zerbitzuen ziurtagiriaren edukia bat ez badatoz, (adibidez, epearen data, Kidegoa/Eskala, erakundea...) epea ez da kontuan hartuko.

➤ Titulazioak:

Oinarri espezifikoetan agertzen diren titulazio akademikoak baino ez dira baloratuko.

Eskala Administratiboan, inola ere ez dira baloratuko graduondokoak, unibertsitateetako berezko titulu-diplomak, masterrak, doktoregoak, prestakuntza-ikastaroak, lanbide-gaikuntzak ...

Eskala Administrazioari laguntzailean, inola ere ez dira baloratuko graduak, lizentziatu tituluak, graduondokoak, unibertsitateetako berezko titulu-diplomak, masterrak, doktoregoak, prestakuntza-ikastaroak, lanbide-gaikuntzak ...

➤ Oposizio-probak gainditzea.

Atal honetan, **Euskadiko Administrazio Orokorra eta haren erakunde autonomoak** deitutako oposizio-probak gainditzea **baino ez da baloratuko**. Ez da baloratuko beste administrazio batzuek (adibidez, Osakidetza, udalek, aldundiek, unibertsitateek...) deitutako oposizioak gainditzea.

Proba baloragarriak 2022ko ekainaren 22a baino lehen gainditu behar izan dira. **2022ko irailean BECen egindako probak ez dira lehiaketa-fasean kontuan hartuko.**

entidades como la Universidad del País Vasco, Cuerpos de la Administración de Justicia... por lo que esos servicios serán valorados como Experiencia General.

No se valorará como experiencia de ningún tipo la adquirida en Sociedades Públicas, Fundaciones, empresas privadas y demás instituciones distintas a las anteriormente mencionadas.

Los periodos de servicios prestados deben ser alegados conforme aparecen en el certificado de servicios prestados que se aporte.

En caso de discrepancia entre los datos alegados en la solicitud y el contenido del certificado de servicios prestados (por ejemplo: fechas del periodo, Cuerpo/Escala, entidad...), el periodo no va a ser computado.

➤ Titulaciones:

Únicamente se van a valorar las titulaciones académicas que figuran en las bases específicas.

Para la Escala Administrativa, en ningún caso se van a valorar postgrados, títulos-diplomas propios de universidades, masters, doctorados, cursos de formación, habilitaciones profesionales...

Para la Escala Auxiliar Administrativa, en ningún caso se van a valorar grados, licenciaturas, postgrados, títulos-diplomas propios de universidades, masters, doctorados, cursos de formación, habilitaciones profesionales...

➤ Superación de pruebas de oposición.

En este apartado se valora **exclusivamente** la superación de pruebas de **oposición** convocadas por la **Administración General de Euskadi y sus Organismos Autónomos**. No se va a valorar la superación de oposiciones convocadas por otras Administraciones como p.ej. Osakidetza, Ayuntamientos, Diputaciones, Universidades...

Las pruebas valorables han debido de ser superadas antes del 22 de junio de 2022. **Las pruebas realizadas en el BEC en Septiembre de 2022 no computan en la fase de concurso.**



- Lan-poltsetako kide izatea.

Atal honetan, **Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko lan-poltsetan egotea baino ez da baloratzen**. Ez da baloratuko beste administrazio batzuetako lan-poltsetako kide izatea, adibidez, Osakidetzakoa, udaletakoa, aldundietakoa, unibertsitatekoa...

Deialdiari dagokion kidego eta eskalako lan-poltsetan egotea baino ez da baloratuko.

- Informatikaren ezagutza.

**IT Txartela** ziurtagiriaren bidez **baino ezin da** egiaztatu. Beste dokumentu batzuk ez dira baloratu.

Tresna informatikoen eta Interneten ziurtagiriak deialdiaren oinarri espezifikoetan jasotako bertsioetan baino ez dira kontuan hartuko.

- Hizkuntzak jakitea.

Ezagutza hori baloratzeko, ekainaren 30eko 117/2015 Dekretuan jasotako ziurtagiriaren bat alegatu eta egiaztatu behar da, abenduaren 22ko 1041/2017 Errege Dekretuaren II. eranskinean ezarritako Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuaren mailaren arabera. Hau da:

Hizkuntza Eskola Ofizialeko B1.1 maila egiaztatzea **ez** da B1 mailaren baliokidea. Maila hori egiaztatzeko, beharrezkoa da B1.2 maila izatea.

Hizkuntza Eskola Ofizialeko B2.1 maila egiaztatzea **ez** da B2 mailaren baliokidea. Maila hori egiaztatzeko, beharrezkoa da B2.2 maila izatea.

Hizkuntza Eskola Ofizialeko 3. eta 4. mailak B1 mailaren baliokideak dira.

Hizkuntza Eskola Ofizialeko 5. maila eta irailaren 2ko, 967/1988 Errege Dekretuak eta aurreko

- Pertenencia a bolsas de trabajo.

En este apartado se valora **exclusivamente la pertenencia a las bolsas de trabajo de la Administración General de Euskadi**. No se va a valorar la pertenencia a bolsas de trabajo de otras Administraciones como p.ej. Osakidetza, Ayuntamientos, Diputaciones, Universidad...

Se valora exclusivamente la pertenencia a la bolsa de trabajo del Cuerpo y Escala correspondiente a la convocatoria.

- Conocimiento de informática.

Este conocimiento **exclusivamente** puede ser acreditado mediante el sistema de certificación **IT Txartela**. Otros documentos no van a ser valorados.

Únicamente computan las certificaciones de las herramientas informáticas e internet en las versiones recogidas en las bases específicas de la convocatoria.

- Conocimiento de idiomas.

Para la valoración de este conocimiento se requiere alegar y acreditar alguno de los certificados incluidos en el Decreto 117/2015, de 30 de junio, según el nivel correspondiente del Marco Común Europeo de Referencia para las lenguas establecido en el anexo II del Real Decreto 1041/2017, de 22 de diciembre. Según esto:

La acreditación del nivel B1.1 de la Escuela Oficial de Idiomas **no** equivale al nivel B1. Para acreditar este nivel es necesario tener el B1.2.

La acreditación del nivel B2.1 de la Escuela Oficial de Idiomas **no** equivale al nivel B2. Para acreditar este nivel es necesario tener el B2.2.

El nivel 3º y 4º de la Escuela Oficial de Idiomas es equivalente al nivel B1.

El nivel 5º de la Escuela Oficial de Idiomas y el Certificado de Aptitud del plan de estudios regulado por el R. D. 967/1988, de 2 de



planak araututako ikasketa-planeko gaitasun-ziurtagiria B2 mailaren parekoak dira.

Abenduaren 29ko 1629/2006 Errege Dekretuak araututako ikasketa-planaren maila aurreratua B2 mailaren parekoa da.

- Euskara jakitea.

Euskararen ezagutza 2022ko abuztuaren 1a baino lehen egiaztatatu behar da.

Euskara jakiteak eskakizun hori ez duten lanpostuetan bakarrik da meritua.

**Oro har, alegatutako merezimenduaren eta hura egiaztatzeko aurkeztutako dokumentazioaren artean desadostasunik ikusi bada, merezimendua ez da baloratuko.**

septiembre y por el plan anterior, equivalen al nivel B2.

El Nivel Avanzado del plan de estudios regulado por el R. D. 1629/2006, de 29 de diciembre equivale al nivel B2.

- Conocimiento de euskera.

La acreditación del conocimiento de euskera debe haberse producido antes del 1 de agosto de 2022.

El conocimiento de euskera solo computa en los puestos en que no sea requisito.

**Con carácter general, en caso de que se observe cualquier discrepancia entre el mérito alegado y la documentación presentada para su acreditación, el mérito no será valorado.**